

## **BALIO PROPOSAMENA**

Gure autobus ekologikoak auzoz auzo autobusez ikastolara joateko beharra asetzen du. Konpontzen dituen arazoei erreparaturik, gurasoak molestatu gabe ikastolara autobusez joateko aukera eskaintzen du, egun euritsu edo beroetan ikasleak oinez joan beharrean autobusean erosotasun handiz joan daitezke.

Besteengandik bereizten gaituen ezaugarri nagusia gure autobus zerbitzu ekologikoa da. Ingurumena kutsatu gabe eskeintzen dugulako zerbitzua

Motorra gasolinarik gabe funtzionatzeko prest dauden ibilgailuak sortzen dituen enpresa batekin hitz egin beharko dugu. Guk erabiliko dugun autobusak energia berriztagarriak erabiliko baititu bere funtzionamenduan.

Eguzki plaken prezioak begiratu eta ekonomia aldetik, epe luzera begira, hoberen ateratzen dena aukeratuko dugu. Eguzki plakak autobusaren goialdean jarriko dira ahalik eta gehien aprobeitza dezaten eguzkiak emandako argia.